

Donostia, 2020ko uztailaren 17a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

INTXAURRONDOKO ANBULATORIOAREN IRISGARRITASUNAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau dakar, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA ZERBITZUAK) Intxaurrondoko osasun zentroaren jobideak hobetzeaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondoko osasun zentroaren irisgarritasun txarra aspalditik datorren arazoa da, auzoko bizilagunek salatu dutena, mugikortasun arazoak dituztenek eta ez dituztenek. Udalak badu horren berri, behin baino gehiagotan salatu baitiote hori hango zenbait auzo-elkartek (IZBE, Marrutxipi Bizilagun Elkartea...) eta partikular ugari. Herritarren kexaren batek, gainera, osasun zentro horretako Oinarrizko Osasun Laguntzako buruaren idazki bat ere bazuen, udal honetako Hirigintza Departamentuari egin ziona hark mugikortasun murriztua duten pertsonen eta haien laguntzaileen irisgarritasun zailtasunen berri emateko.

Gune Publikoen Batzordeak 2019ko urrian izan zuen bileran egin genuen interpelazioan eta joan den otsailaren 21ean Osoko Bilkurara eramandako kontrol-mozioan ere azaldu genuen bezala, oso toki txarrean dago zentroa, ez dago aparkalekurik ibilgailuan joaten diren pertsonentzat eta oso jobide txarra dago ambulanziaz sartzeko ere. Ambulatoriora sartzeko bideak ere ez dira batere egokiak, eta komeria handiak izaten dituzte adinekoek edo gorpil-aulkian ibili behar dutenek.

Gainera, orain dela hilabete batzuk obrako hesi batzuk jarri zituzten eta anbulatorioko hiru bidetatik bi itxi egiten dituzte. Hesi horietako batek, gurgil-aulkian edo mugikortasun murriztua duten pertsonak pasatzeko den aldapa ere itxi egiten du. Itxura denez, babes-neurri gisa jarri dituzte hesi horiek, eraikinaren teilatuko teila batzuk eta kanaloizati bat erori direla eta. Horrela, bizilagunek jakinarazi digutenez, aurreneko hondakinak joan den urrian erori ziren; eta haiek kendu eta beste ezer ere ez zuten egin. Gero, aurtengo udaberrian, berriz erori dira teilak eta egoerak zekarren arriskua zela eta, hesiak jarri zituzten.

Denborak aurrera egin arren, jobideek itxita segitzen dute, eta uste dugu ulertezina dela Udal Gobernuak oraindik ere ezer ere ez egitea han pertsonen osasun zentrorantz sartzea bermatzeko.

Bestalde, Udal Gobernuak, otsailean, hitz eman zuen (1) anbulatoriorako irisgarritasuna hobetzeko, (2) ingurua hobetzeko, anbulantziek sarbide hobe izan zezaten, eta (3) ingurua hobetzerik ez balego, Eusko Jaurlaritzari osasun zentroak dituen irisgarritasun-arazoak berri eman eta jobide hobe duen beste leku bat eskatzeko.

Gobernuak otsailean hartu zuen konpromiso horren ondorioz, sarbideen zati bat asfaltatu egin dute, baina anbulatorio horren kokapena eta sarrerek lehen bezain gaizki daude. Eta baita lehen baino okerrago ere, duela hilabete batzuetatik, obrako hesi horiek direla eta.

Anbulatorioaren inguruan egin diren obra eta esku-hartzeak ez dute konpondu zentro horrek erabiltzaileentzat irisgarritasun aldetik dituen arazoak. Arazo hori jakinda, irtenbide egokiena anbulatorio hori beste leku batera aldatzea izango litzateke.

Hala, zinegotzi eskuordedunari gai horri buruzko interpelazioa egin genion Gune Publikoetako Batzordean, eta hark, hitzaldia amaitzekoan, adierazi zuen Eusko Jaurlaritza berria eratzen zenean gai hori helaraziko zietela eta egin beharreko kudeaketak egingo zituztela. Hala ere, egoera ez denez berria, eta udal gobernuak otsailean kontu honekin ados izan zenez, arazo horiek dagoneko jakinarazita izan behar zituen Eusko Jaurlaritzari, batez ere herritarrei modu horretan eragiten dieten arazoak izanik, osasun arazoak dituztela joaten baitira herritarrak anbulatoriora, denbora pasa ez baina. Hain zuzen ere, osasun edo mugikortasun falta izanez gero, oztopo horiek –berez ere

larriak—, benetan nekagarriak izaten dira zentrora joaten diren bizilagunentzat, eta eginahalak eta bi egin behar izaten dituzte osasun-profesionalek kasu egitera ailegatuko badira.

Horiek horrela direla, kontuan izanda adineko pertsonentzat eta, oro har, herritarren bizikaltatearentzat zenbateko mesedea izango litzatekeen arazo hori konpontzea, hauxe da guk dakargun

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio hesiak kentzeko moduko konponbiderik ez den bitartean, bitarteko batzuk jartzeko mugikortasun arazoak dituzten pertsonen osasun zentrora lasai joan ahal izateko.
2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio lehenbailehen ekiteko anbulatoriora sartzeko atea eta bideak ixten dituzten hesiek sortzen duten arazoa konpontzeko.
3. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio behin betiko konponbide bat aurkitzeko Intxaurrendoko Osasun Zentroko jobidea hobetzeko.
4. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio, sarbideak hobetzeko modurik ez badago, jar dadila harremanetan Eusko Jaurlaritzarekin urjente eta Intxaurrendoko anbulatorioaren irisgarritasun arazoak azaltzeko eta osasun zentroa beste toki batean jartzea eskatzeko.

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia